

ALKATE DEKRETUA

2025eko otsailaren 14an, Agurne Gaubeka Erauskin andreak, HIZKUNTZA ESKUBIDEEN BEHATOKIA-ren izenean 2025-733 sarrera erregistro zenbakia duen idatzi bidez dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen Ibarra Udalean.

Aipatu eskaeran adierazten den moduan, Hizkuntza Eskubideen Behatokia Euskal Herriko hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein eremu sozioekonomikoan, bermatzera zuzentzen du bere jarduera.

Ibarra Udala bat dator Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren lanarekin eta helburuekin.

Kontuan harturik, Ibarra Udalak 2024ko martxoaren 21ean onartutako 2024-2027 epealdirako dirulaguntza plan estrategikoan dirulaguntza izendun gisa jasotzen dela Hizkuntza Eskubideen Behatokia.

Kontuan harturik, dirulaguntza izenduna dela Hizkuntza Eskubideen Behatokia delako Euskal Herriko hizkuntza-eskubideen arduratzen den erakunde bakarra.

Kontuan harturik, Euskara arloko dirulaguntzetan jasotzen dela 1 10.335.00.481.06 diru-partida.

Kontuan harturik, aipatutako aurrekaria eta udal txosten teknikoak.

Ondorioz, Alkatetza honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikulua, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 24. artikulua eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41. artikulua arabera esleitzen zaizkion ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA. Diruz laguntzea Hizkuntza eskubideen Behatokia Euskal Herriko hizkuntza-eskubideez arduratzen dena; eta, bere jarduera eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein eremu sozioekonomikoan, bermatzera zuzentzen duena.

BIGARRENA. Aipatu dirulaguntza 800 €koa izango da eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiari (G31724339) ordainduko zaio ES51 3035 0111 66 1110025640 kontu korrontean

HIRUGARRENA. Aipatu kopurua 2025eko aurrekontuetako 1 10.335.00.481.06 partidatik egingo da, bertan nahikoa kreditu dagoelako dirulaguntza honi aurre egiteko.

LAUGARRENA. Aipatu dirulaguntza helburu bererako beste dirulaguntzekiko, laguntza edo diru-sarrerekiko bateragarria izango da, berdin dio zein administrazioetik edo erakunde publiko nahiz pribatutik, nazioko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik datozen.

BOSGARRENA. Dirulaguntza ordainketa bakarrean egingo da.

SEIGARRENA. Egindako diru-ekarpena justifikatzeko Hizkuntza Eskubideek Behatokiak honakoa aurkeztu beharko dute 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen:

- a. Jardueraren memoria, dirulaguntza jaso duen ekintzarena.
- b. Memoria ekonomikoa, egindako jardueraren kostua justifikatzen duena

ZAZPIGARRENA. Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen honen berri interesatuari ematea.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen berri udalbatzari ematea egiten duen hurrengo lehen osoko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan

Nekane Lazkano Prieto

Alkateordea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2025WDIZ0006-Dekretua_OR/Decreto_GE (FUNDACION OBSERVATORIO DE DERECHOS)
-------------------	--